

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Amurrioko udalerriko zarataren mapa estrategikoa eta haren ekintza plana eguneratzeari (Esp.: 2020/S198/87)

Amurrioko udalbatzak, 2023ko apirilaren 27an, erabaki zuen hasierako onespena ematea Amurrioko udalerriko zarataren mapa estrategikoaren eta haren ekintza planaren eguneraketa jendaurrean jartzeari.

Jendaurreko informazio aldiak alegazio bakarra aurkeztu zen, gaueko aisialdiko jardueri lotutako zarata arautzeari buruzkoa. Eskaera hori ez zen onartu, eskaera ez baita zarataren mapa estrategikoaren xedea.

Amurrioko udalbatzaren 2016ko uztailaren 28ko bilkuraren bidez, onspena eman zitzaion zarataren mapa estrategiko horri eta, aldi berean, zarataren ordenantza onetsi zen, EAEko hots kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako mugei lotuta.

Aipatutako dekretuak adierazten duenez, zarata mapak egiteko eskumena duen administrazioak egokitzat jotzen duen egunean eta aldizkakotasunarekin eguneratuko dira zarata mapak, baina inola ere ez da gaindituko bost urteko epea ekintza plan bat onesten denetik berrikusten den arte; beraz, 2020an eta 2021ean dokumentua eguneratzeko lan egin da.

Bestalde, dokumentu berriak hain zuzen adierazitako lurzorua aztertzen du, bereziki HAPOak jasotzen duen hiri lurzorua eta urbanizatzeko egokia dena, zeina 2022ko ekainaren 30eko bilkuran onetsi baitzuen udalbatzak, eta zarata foku bakoitzerako eta lau adierazleerako (eguna, arratsaldea, gaua, 24 ordu) estatistikak biltzen ditu, zona akustiko desberdinei dagokienez, eta hots kutsadura prebenitu eta murrizteko bete beharreko neurriak zehaztu ditu. Halaber, plangintza orokorraren dokumentuak aurreikusten du, hala badagokio, eremu sentikorretarako egin beharreko diseinu alternatiben azterketa eskatzea (eraikuntza lurzatien kokaleku eta xedapen desberdinak, eta erabileren orientazioaren zarata ekoizleak diren fokuei dagokienez), aplikatzekoa den udal plangintzaren antolamendu xehatua onetsi aurretik.

Amurrioko udalbatzak, 2024ko urtarrilaren 25ean, erabaki zuen behin betiko onespena ematea Amurrioko udalerriko zarataren mapa estrategikoa eta haren ekintza plana eguneratzeari.

Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ediktu hau ALHAOn argitaratuz jakinarazten da.

Amurrio, 2024ko otsailaren 13a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA